



EAKO UDALA

EAKO UDALA

Donibane plaza, 2
48287 EA
Tf. 94 627 52 27
Posta e.: udala@ea.eus

2025/279 ALKATETZA DEKRETUA

DECRETO DE ALCALDIA 279/2025

Osoko Bilkurak 2024ko uztailaren 29an hartutako erabakiaren bidez, Eako Udalaren 2024-2026 hirurtekorako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen.

Por acuerdo plenario de 29 de julio de 2024 se aprobó el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Ea para el trienio 2024-2026.

PES-en eranskinean dirulaguntzen zerrenda bat zehazten da, eta horien artean;

En el anexo de PES se detalla una relación de subvenciones, entre las que cabe destacar;

- Euskara ikasteko diru-laguntza, 335 48001 partidaren kargura, 1.500,00 euroko zenbatekoarekin.

- Aprendizaje de euskara, con cargo a la partida 335 48001, por un importe de 1.500,00 euros.

IKUSITA Herri dinamizatzailaren proposamena, ebazpen honen motibazio gisa balio duena, eta proposatutakoaren ildotik hartzen duena,

VISTA la propuesta del Area de Cultura, que sirve de motivación a la presente resolución, la cual adopta en el sentido en aquél propuesto,

Eako Udalaren Dirulaguntzak Emateko Erregimena Arautzen duen Ordenantza Orokorraren 5. Artikuluan (norgehiagoka erregimeneko dirulaguntzak emateari dagokionez) eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege orokorraren 23.2 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.

Según el art. 5 de la Ordenanza General Reguladora del Régimen de Subvenciones del Ayuntamiento de Ea y teniendo en cuenta lo establecido en el artículo 23.2 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones en relación con la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva.

Era berean, Udaleko kontu-hartzailetzak emandako aldeko txostena aztertu da.

Asimismo, se ha analizado el informe favorable emitido por la Intervención Municipal.



EAKO UDALA

EAKO UDALA

Donibane plaza, 2
48287 EA
Tf. 94 627 52 27
Posta e.: udala@ea.eus

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003

Lege Orokorraren 22. Artikuluan eta
hurrengoetan xedatutakoa kontuan hartu da.

Se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el
art. 22 de la Ley 38/2003, de 17 de
noviembre, General de Subvenciones:

Horregaitik guztiagaitik, honako hau:

Por todo ello:

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- 2025 urtean euskara ikastaroak
arloan finantzatzeko udal diru laguntzen
deialdia onartzea.

BIGARRENA.- 1.500,00 euroko gastua onartzea,
partiden kargura,

- 335 48001

HIRUGARRENA.- Deialdiaren laburpena BAOn
eta BDNS argitaratzeko agintzea, dekretu
honen eranskinaren arabera.

LAUGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea
Udalbatzari, egingo duen hurrengo osoko
bilkuran.

Ean, sinadura elektronikoaren datan,

RESUELVO:

PRIMERO. Aprobar la convocatoria para
las de las subvenciones municipales con
destino a financiar cursos de euskara para
el año 2025.

SEGUNDO.- Aprobar un gasto de 1.500,00
euros, con cargo a las partidas ,

- 335 48001

TERCERO. Ordenar la publicación del
extracto de la convocatoria en el BOB y
BDNS, de acuerdo con el Anexo del
presente Decreto.

CUARTO.- Dar cuenta de la presente
Resolución al Ayuntamiento Pleno, en la
primera sesión ordinaria que celebre.

En Ea, a fecha de firma electrónica,



EAKO UDALA

EAKO UDALA

Donibane plaza, 2
48287 EA
Tf. 94 627 52 27
Posta e.: udala@ea.eus

Euskara ikasteko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia

1. Xedea.

Dirulaguntza honen helburua da Ean errolatutako herritarrak bultzatzea euskara ikastaroetan parte hartzera; horretarako, Eako Udalak dirulaguntzak emango dizkie euskaltegi edo barnetegi batean euskara ikasten ari diren herritarrei.

Diruz lagunduko dira HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak onartutako zentroetan egindako ikastaro presentzialen, autoikaskuntzakoen eta mistoen gastuak, oinarri hauetan zehaztutako baldintzen eta gehienezko kopuruen arabera.

2. Aurrekontua.


Eako Udalak 1.500,00 euroko aurrekontua izango du xede honetarako.

Kasuan kasu, eskaerak aztertuta, deialdi honetan aurreikusitako kopurua gaindituko balitz, eskaeren kopuruaren eta erabilgarri dagoen kopuruaren diferentzia proportzionalki kalkulatu da diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten eskatzaile guztien artean.

3. Onuradunak.

Baldintza hauek betetzen dituztenek eskatu ahal izango dute dirulaguntza:

- 16 urte edo gehiago izatea.
- Ean errolatuta egotea.
- HABEk onetsitako zentro batean matrikulatuta egotea.
- Gutxienez % 80ko asistentzia-maila izatea. Asistentzia zenbatzean, ez dira hutsegite gisa hartuko honako kasu hauek:
 - o Ikasle batek lanagatik ezin badu euskaltegira joan ordutegi horretan (enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko da).
 - o Gaixotasuna (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).
 - o Haurdunaldiagatik atsedena behar izatea (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).
- Ikastaroaren aprobetxamendua ahalik eta handiena izatea.
- Dirulaguntzak jasotzeko inolako debekurik ez izatea.



Eako UDALA

EAKO UDALA

Donibane plaza, 2
48287 EA
Tf. 94 627 52 27
Posta e.: udala@ea.eus

- Aurreko bi urteetan ikasmaita berberean matrikulatzeagatik dirulaguntza jaso ez izana.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen aitortpen erantzulea betetzea eskaera orrian.
- Aurretiaz HABEren euskara ikasleentzako dirulaguntza eskatu izana.

4. Dirulaguntzen bateragarritasuna.

1. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandakoekin, xedea berbera izanda ere.
2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Horrelakorik gertatuz gero, murriztu egingo da oinarri hauen kargura ematekoa zen dirulaguntzaren zenbatekoa, muga ez gaingiditzeko.
3. Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ez dira estatu laguntza, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunak ez baitira jarduera ekonomikoak egiten dituzten enpresak; ondorioz, laguntza horiek ez dira sartzen tratatu horren 108.3 artikuluan aurreikusitako jakinarazpen-prozeduran.

5. Eskaera aurkezteko behar den dokumentazioa

Dirulaguntzak eskatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Dirulaguntza eskatzeko eskabidea, eredu normalizatuaren arabera behar bezala beteta.
- NANaren fotokopia.
- Euskaltegiaren ziurtagiria, ikasturteari buruzko informazio honekin:
 - o Eskatzailea zein mailatan hasi zen eta zein maila egiaztatu duen.
 - o Asistentzia zenbatekoa izan den, ehunekotan.
 - o Ikasleak zer zenbateko ordaindu duen ikastaroagatik.
 - o Ikaslearen aprobetxamendua nolako izan den.
- Kontu korrontearen titulartasun-ziurtagiria.

6. Eskaera aurkezteko modua eta epea

1. Bide hauetako edozein erabiliz aurkeztu ahalko da eskaera: erregistro elektronikoa, erregistro-gaietako laguntzarako bulegoak, posta-bulegoak, eta indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritako beste edozein toki.



EAKO UDALA

EAKO UDALA

Donibane plaza, 2
48287 EA
Tf. 94 627 52 27
Posta e.: udala@ea.eus


2. Deialdiaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak eskuragarri egongo dira udalaren egoitza elektronikoan.
3. Eskabideak eta dokumentazio osagarria aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
4. Eskatzaileek ez dituzte aurkeztu beharko jadanik udalaren esku dauden dokumentuak, urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
5. Dirulaguntza eskaera aurkezteaz bat, eskatzaileak aitortuko du betetzen dituela deialdian ezarritako baldintza guztiak, eta osotasunean onartzen dituela oinarri hauek. Halaber, adieraziko du eskabidean ageri diren datu pertsonalak bere baimenarekin hartu direla, eta baimentzen duela datu horiei trataera automatizatu ematea; era berean, onartuko du datu horiek sartzeari behar bezala baimendutako udal fitxategietan. Datu horiek erabiltzeko baimena emango du, baldin eta erabilera hori udal kudeaketara mugatzen bada.

7. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkezteak

1. Eskaeran edo horrekin batera doan dokumentazioan ez badira ageri identifikazio datuak, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio akats horiek zuzentzeko, urriaren 1eko 39/2015 legearen 68. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Epe horretan akatsak zuzendu ezean, uste izango da eskatzaileak uko egin diola, eta artxibatu egingo da, beste tramiterik egin gabe.
2. Udalak beharrezko irizten dion informazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei eskabidean adierazitakoa egia dela ziurtatzeko.

8. Dirulaguntzen zenbatekoa

1. Honako irizpide hauek erabiliko dira dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoari erreparatuz:
 - A1, A2, B1, B2 mailak: matrikularen % 100eko dirulaguntza, 900 euroko gehienezko mugarekin.
 - C1 maila: matrikularen % 100eko dirulaguntza, 500 euroko gehienezko mugarekin.
 - C2 maila: matrikularen % 75eko dirulaguntza, 400 euroko gehienezko mugarekin.
2. Deialdiaren aurreko urtean edo urte berean bukatutako ikastaroak baino ez dira diruz lagunduko, eta behin baino ezingo da dirulaguntza jaso matrikula beragatik.



EAKO UDALA

EAKO UDALA

Donibane plaza, 2
48287 EA
Tf. 94 627 52 27
Posta e.: udala@ea.eus

3. Dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da inoiz izan ikastaroaren edo jardueraren kostua baino handiagoa.

9. Prozedura bideratzeko, instrukzioa egiteko eta ebazteko organo eskudunak

1. Dirulaguntza emateko prozeduraren instrukzioa egitea Balorazio Batzordeari dagokio. Batzorde hori gizarte eta kultura dinamizatzailleak, arloko zinegotziak eta udal-idazkariak osatuko dute.
2. Balorazio Batzordeak aztertuko ditu eskabideak, eta haiek baloratzeko txostena eta ebazpen-proposamena egingo ditu. Proposamen horretan zehaztuko du egindako ebaluazioaren emaitza, eta organo eskudunari helaraziko dio, onar dezan.
3. Alkateak izango du oinarri hauetan jasotako dirulaguntzak ematea ebazteko eskumena.
4. Hiru hilabetekoa izango da dagokion ebazpena emateko, argitaratzeko edo jakinarazteko gehieneko epea. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatuko da epe hori.
5. Epe hori igaro eta ez bada ebazpena jakinarazi edo argitaratu, interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute eskabidea administrazio-isiltasunez.

10. Onuradunen betebeharrak

1. Honako betebeharrak orokor hauek dituzte dirulaguntzen onuradunek:

- Dirulaguntzaren xede den jarduera bete-betean burutzea.
- Dirulaguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea.
- Oinarri hauetan zehaztutako eran aurkeztea justifikazioak.
- Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduketari men egitea, bai eta kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen finantza-egiaztapen eta -kontrolko beste edozein jarduketari ere, eta aurreko eskatzen zaion informazio guztia ematea.
- Dirulaguntza ematen duen organoari jakinaraztea, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide lortuz gero. Jakinarazpen hori laguntza jasotzearen berri izan orduko egin beharko da, eta, nolanchi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

11. Dirulaguntzen ordainketa

Dirulaguntzak ematea Alkatetzaren Dekretu bidez ebatzi ondoren, hilabeteko epean egingo da dirulaguntzaren ordainketa, dirulaguntza ematen den egunetik zenbatzen



EAKO UDALA

EAKO UDALA

Donibane plaza, 2
48287 EA
Tf. 94 627 52 27
Posta e.: udala@ea.eus

hasita. Ordainketa behin bakarrik egingo da, interesdunak emandako kontu korrontera banku-transferentzia eginez. Kontu korronte hori hirugarrenen fitxan jasoko da.

12. Dirulaguntzak itzultzea

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 36. eta 37. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak itzultzea eta dirulaguntza ordaintzen denetik itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesa eskatzea.

2. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. tituluko II. kapituluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduaren III. tituluko II. kapituluan ezarritako xedapenek arautuko dute dirulaguntzak itzultzeko prozedura.

3. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.n) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako irizpide hauek zehazten dira dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko, kasu bakoitzean itzuli beharreko ehunekoekin:

- Baldintzak faltsutuz edo ezkutatuz lortzea: %100
- Bertaratzeko edo ordaintzeko betebeharra ez betetzea: %100

13. Araudi aplikagarria

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak arautuko dituzte, oinarri hauetan xedatutakoaz gain, Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Udal Ordenantza, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako garapen-erregelamenduak, eta dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko gainerako arauak.